

PIRATEN ESKOLA

IRAKURTZEKO GOGOA PIZTEKO ESTRATEGIAK

HELBURUAK:

- **FANTASIA ETA IRUDIMENA SUSTATZEA.**
- **SORMENA GARATZEA.**
- **IKASLEEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA.**
- **IRAKURTZEAN ARRETA LANTZEA.**

ORIENTABIDEAK:

PIRATEN ESKOLA

LIBURUA IRAKURRI AURREKO JARDUERAK

1

HELBURUAK:

- **TALDEAN LAN EGITEA.**
- **IRUDIMENA GARATZEA.**
- **PIRATEN BERRI IZATEA.**

DESKRIBAPENA: PIRATA IZANGO GARA!

ERREPARATU LIBURUAREN IZENBURUARI: *PIRATEN ESKOLA*. EMAN DEZAGUN IKASGELA UHARTE BAT DELA, ETA BERTAN BOST PIRATA TALDE BIZI DIRELA. TALDE BAKOITZEKO KIDEEK ORDU ERDI IZANGO DUTE PIRATEN **IZENAK** AUKERATZEKO. **HORREZ GAIN**, KAPITAINA NOR IZANGO DEN ERABAKIKO DUTE. **ONTZI** PIRATARI ERE IZENA JARRI, ETA TRIPULAZIOAREN BANDERA MARRAZTUKO DUTE. **AZKENIK**, **ABESTI PIRATA** BAT ASMATU EDO GOGORATUKO DUTE.

GERO, BOST **ESKIFAIK** IKASKIDEEN AURREAN AGERTUKO DIRA. **KAPITAINAK** MARINELAK AURKEZTUKO DITU, ETA DENEK BATERA TALDEKO ABESTI PIRATA KANTATUKO DUTE.

ORIENTABIDEAK: IRAKASLEAK TALDEEN LANA GIDATUKO DU, ETA ESKIFAIARIK ORIGINALENA AUKERATUKO DU.

LIBURUA IRAKURRI AURREKO JARDUERAK

2

HELBURUAK:

- **ONDO PASATZEA.**
- **ONDORIOAK ATERATZEKO GAITASUNA GARATZEA.**
- **TALDE-LANA SUSTATZEA.**

DESKRIBAPENA: ALTXORRAREN BILA

IRAKASLEAK ALTXOR BAT (TXANPON BAT, GOZOKIAK...) EZKUTATUKO DU IKASGELAN, INORK EZER JAKIN GABE.

ESKIFAIA BAKOITZAK BOST GALDERA PRESTATUKO DITU, ALTXORRA NON DAGOEN IGARTZEKO. IRAKASLEAK BAI EDO EZ BAINO EZIN ERANTZUNGO DU.

GALDEREN TXANDAK AMAITUTA, TALDEETAKO KAPITAINEK BOST MINUTU IZANGO DITUZTE ALTXORRA AURKITZEKO.

ALTXORRA LEHENENGO AURKITZEN DUEN ESKIFAIAK IRABAZIKO DU JOLASA.

ORIENTABIDEAK:

PIRATEN ESKOLA

LIBURUA IRAKURRI BITARTEKO JARDUERAK

3

HELBURUAK:

- EGUNEROKO BIZITZAN **ELEKTRIZITATEAK** DUEN GARRANTZIAZ OHARTZEA.
- **IRUDIMENA** SUSTATZEA, ARAZOAK KONPONTZEKO BIDE GISA.

DESKRIBAPENA: IZAN BEDI ARGIA!

ISTORIOAN ARGINDARRIK GABE GERATZEN DIRA IKASTETXEAN. HORI DELA ETA, EZIN DUTE BAZKARIA PRESTATU.

IKASLEEK ARGINDARRIK GABE BIZITZEAREN ONDORIOAK AZTERTUKO DITUZTE.

BOSPASEI IKASLEKO TALDEAK ANTOLATUKO DIRA. TALDEEK ARGINDARRARI ESKER EGUNERO EGITEN DIREN GAUZEN ZERRENDAA OSATUKO DUTE.

ONDOREN, GALDERA HONI ERANTZUTEN SAIATUKO DIRA: NOLA EGIN DAITEZKE GAUZA HORIEK GUZTIAK ARGINDARRIK GABE?

ERANTZUN GUZTIAK DIRA BALEKOAK. SAIOA BUKATZEAN, DENAK IRAKURRI ETA ORIGINALENAK AUKERATUKO DIRA.

ORIENTABIDEAK:

PIRATEN ESKOLA

LIBURUA IRAKURRI BITARTEKO JARDUERAK

4

HELBURUAK:

- **GORPUTZ-ADIERAZPENA LANTZEA.**
- **ANTZEZTEKO ZALETASUNA PIZTEA.**
- **IRAKURKETA OZENETAN ULERMENA GARATZEA.**
- **ISTORIOETAKO PERTSONAIK BEREIZTEN IKASTEIA.**

DESKRIBAPENA:

LIBURUKO 6. KAPITULUAN MATXINADA BAT GERTATZEN DA. IRAKASLEAK IKASLE BAKOITZARI PERTSONAIA BAT EGOKITUKO DIO, ETA NARRATZAILEA AUKERATUKO DU. IKASLEEK HAMAR MINUTUKO TARTEA IZANGO DUTE KARAKTERIZAZIOAN PENTSATZEKO. DENAK PREST DAUDENEAN, IKASLEEK KAPITULUA OZEN IRAKURRIKO DUTE, NORK BERE ZATIA ANTZEZTUZ.

ORIENTABIDEAK:

IRAKASLEAK LAGUNTZA ESKAINIKO DIE IKASLEEI KARAKTERIZAZIOAN. MOZORROAK EGITEKO, ESKOLAKO MATERIALA, PAPERA ETA KOLOREAK ERABIL DAITEZKE.

PIRATEN ESKOLA

LIBURUA IRAKURRI ONDOKO JARDUERAK

5

HELBURUAK:

- **PERTSONAIEN AZTERKETA SAKONA EGITEA.**
- **ARRETA GARATZEA.**

DESKRIBAPENA: NOR NAIZ NI?

IRAKASLEAK TXARTELAK EGINGO DITU, ISTORIOKO PERTSONAIEN IZENEKIN.

BOLUNTARIO BAT ATERAKO DA IKASKIDEEN AURRERA. BEKOKIAN TXARTELETAKO BAT ITSATSIKO DIO IRAKASLEAK, IKASKIDE GUZTIEK IKUSTEKO MODUAN.

IKASLEEK PERTSONAIAREN EZAUGARRIAK AIPATUKO DITUZTE, TXANDAKA. BOLUNTARIOAK TARTE BAT IZANGO DU PERTSONAIA NOR DEN IGARTZEKO.

PERTSONAIA NOR DEN IGARRI ONDOREN, LIBURUKO AZKEN ORRIALDEETAKO PERTSONAIAREN DESKRIBAPENA IRAKURRI, ETA BOLUNTARIOAK PERTSONAIA HORREKIN DITUEN ANTZEKOTASUNAK AZALDU BEHARKO DITU.

BESTE HORRENBESTE EGINGO DA ISTORIOKO ZENBAIT PERTSONAIAREKIN.

ORIENTABIDEAK:

PIRATEN ESKOLA

LIBURUA IRAKURRI ONDOKO JARDUERAK

6

HELBURUAK:

- **IKUSKERA-ESPAZIALA.**
- **IRUDIMENA SUSTATZEA.**
- **ARRETA GARATZEA.**

DESKRIBAPENA: EKIALDEKO JOLASA

IRAKASLEAK LAU ORRI EMANGO DIZKIO TALDE BAKOITZARI, BI ZIRKULU, LAU TRIANGELU, BI ERREKTANGELU ETA HIRU KARRATU MARRAZ DITZATEN.

TALDE BAKOITZAK ONTZI PIRATA BAT OSATU BEHARKO DU, IRUDI HORIEK ERABILIZ, AHALIK ETA ORIGINALENA. AZKEN EMAITZA KARTOI MEHE BATEAN ITSATSIKO DUTE.

IKASLEEK BOZKATU EGINGO DUTE ONTZI GUZTIEN ARTEAN GUSTUKOENA AUKERATZEKO.

ORIENTABIDEAK: IRAKASLEAK LAGUNTZA ESKAINIKO DIE TALDEEI PIEZAK EGITEKO.